

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KALANAK

Hainbat ideia ditugu buruan bezero berriak erakartzeko eta gure enpresa hirian ezagunagoa izateko. Gure ideietako bat blog bat sortzea da, jendeak ikus dezan nola lan egiten dugun haurrekin, gaixo egon zein ez. Eta blogaz gain, argazkiak eta bideoak eskegiko ditugu gure sare sozialetan, gure zerbitzu handiagatik zienteak erakartzeko. Flyerrak ere inprimatuko ditugu, inguruko eraikinetako postontzietan banatzeko.

Horretaz gain, gure komunikazio bide nagusia web orrialde bat izango da bezeroek nahi duten informazio eta zalantza guztiak argitzeko. Gure tarifak eta zerbitzuak hor azalduta daude eta nahi duenaren eskura. Gurekin hitz egin nahi duen bezeroak, gure telefono zenbakia aurkitu ahal du gure web orrialdean ere. Gure zerbitzua a kontratatu ahal da web orrialdetik eta hortik matrikulatu ahal da Egutegiak eta ordutegiak argituta daude bertan.

Banaketa bideei dagokionez, eskaintzen dugun zerbitzua bakarrik gure hartzaindegian eskaintzen dugu, eta momentuz bakarrik lokal bat daukagu. Gure lokala Leioa zentroan dago, bi logela handi ditu, bata jolasteko, jateko eta denbora pasatzeko, eta bestea lo egitelko. Gero beste gela txikiago bat daukagu gaixotasun kutsakorrak dituzten haurrentzat. Biltegi txiki bat daukagu, behar den guztiarekin, eta bi bainugela ekipatuta.

Gure zerbitzuak sustatzen hasteko iragarki bat jarriko dugu postaz (el correo- egunkarian) 424€-ko prezioa du.